



# Euskal Autonomia Erkidegoko ibaietan baimenik gabe egiten diren isurien ikuskaritzari eta kontrolari buruzko protokoloak hobetzeko proposamenak

Arartekoaren 2/2019 gomendio  
orokorra, 2020ko urtarrilaren 23koa





## **Arartekoaren 2/2019 Gomendio orokorra, 2020ko urtarrilaren 23koa**

### **Euskal Autonomia Erkidegoko ibaietan baimenik gabe egiten diren isurien ikuskaritzari eta kontrolari buruzko protokoloak hobetzeko proposamenak.**

- 1. Aurrekariak** Arartekoak, talde ekologistek aurkeztutako salaketen bidez eta komunikabideetako berrien bitartez jakin du 2018an eta 2019an autonomia erkidegoko ibaietan isuri kutsagarriak gauzatu zituztela zenbait kasu puntualetan.

Zehazki, ekologisten elkarteek nabarmendu dute hainbat isuri puntu salatu izan dituztela, eta eskumenak dituzten administrazioei horien berri eman dietela SOS Deiak zerbitzuaren bitartez. Gehienetan, elkarteek azaldu dute isuriak gertatu ondoren zailtasunak izan dituztela URA- Uraren Euskal Agentziak egindako esku-hartzeari buruzko informazio eskuratzeko edo hala badagokio, eskumenak dituen ingurumen poliziak (Ertzaintzak, basozainek edo Udaltzaingoak) isuriaren iturri posibleari, izaerari, arduradun posibleei eta kasu bakoitzean ezarritako zehapen neurriak ikertzeko eta zehazteko egindako lanari buruzko informazioa eskuratzeko.

Adibidez, honako isuri hauek aipatu dituzte:

Joan den 2018ko martxoaren 13an, Deba ibaira -Elgoibarren parean- egindako isurketaren berri eman zen. Isurketa horrez gain, beste kasu puntual batzuk izan dira 2017an: Arabako zenbait tokitan, hala nola Zadorra ibaian -Agurainen parean- (2017ko maiatzaren 5ean eta ekainaren 11n) eta Markinez ibaian (2017ko uztailaren 2an); Gipuzkoako Oria ibaian -Zizurkil eta

**Euskal Autonomia Erkidegoko ibaietan baimenik gabe egiten diren isurien ikuskaritzari eta kontrolari buruzko protokoloak hobetzeko proposamenak**

Villabona artean- (2017ko maiatzaren 12an) eta Deba ibaian -Soraluze parean- (2018ko otsailaren 12an); eta Bizkaiko Gobela ibaian (2018ko martxoaren 4an).

2018ko urriaren 29an Zadorra Bizirik plataformako kideek Zadorra ibaiko isuri bat salatu zuten, Araiako industrigune parean gertatutakoa.

2019ko martxoaren 29an Eguzki Elkarteak Oria ibaiko isuri bat salatu zuen Zizurkil parean, Oriako paper fabrikaren ondoan kokatutakoa.

Isuriei eta horiek ingurumenean eta faunan sortu ditzaketen ondorioei buruzko berri eta salaketa horiek direla-eta gizartea eta erakundeak geroz eta kezkatuago daude.

Ofiziozko kexa espediente hau izapidetzeko beharrezko informazioa eskuratzeko, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eta URA-Uraren Euskal Agentziari Euskal Autonomia Erkidegoan 2017ko urtarrilaren 1aren eta 2018ko martxoaren artean baimenik gabe egindako isuriei buruzko informazioa eskatu zien. Horrez gain, baimena eskatu zuen baita ere Zadorra ibaiaren ibilguan 2018ko urriaren 29an egindako isuriari buruzko ebazpen hau sortzeko.

Zehazki, eskatutako informazioa honako hauei buruzkoa izan zen:

- Beraiek egindako ikuskaritza akta kopurua eta beste erakunde batzuk egindakoak (tokiko administrazioa, Ertzaintza, SOS Deiak zerbitzua), baita herritarrek ingurumen salaketen bidez egindakoak ere.
- Zenbat espediente abiarazi diren jabari publiko hidraulikoan eragindako kalteak konpontzeko. Halaber, zenbat jarduketa egin diren horiek lehengoratzeko, 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren (uztailaren 20koa, Uraren Legearen testu bategina onartzen duena) 100. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.
- Zenbat zehapen espediente abiarazi diren, eta zenbat ebatzi diren behin betiko, uraren legerian jasotako xedapenak betez.
- Ingurumen delituen jarraipenean espezializatutako fiskaltzari bidalitako ikuskatze akten kopurua.

Erakunde honek jakin nahi du zer prozedurari edo protokolori jarraitzen dion Uraren Euskal Agentziak (URA) haren eskumeneko EAEko ibai-ibilguetara egindako baimendu gabeko isurketen kontrolean esku hartzeko.

Horrez gain, Arartekoak Ertzaintzako agenteek Zadorra ibaian 2018ko urriaren 29an egindako isuriari zegokionez egindako ikuskaritza aktei buruzko informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, eta ingurumen delituen jarraipena egiteko espezializatutako fiskaltzari hori bidaltzeko gauzatutako izapidetzeari buruzko informazioa baita ere.

**Administrazioen erantzuna.** 2018ko uztailaren 27an URA-Uraren Euskal Agentziak isurien kontrola egiteko erabiltzen duen prozedurari buruzko txostena bidali zuen Arartekora.

Horri dagokionez adierazi zuten orokorrean jabari publikoan ur isuriak egiteko eta substantzia kutsagarriak baimenarekin botatzeko, aurretiaz administrazioaren baimena behar dela. 2017ko isurien erroldan EAEn baimendutako 2384 isuri puntu daudela zegoen jasota; horietatik 1441 hiriko hondakin urak ziren, eta 722 ur industrialak. Isuri horiek baimenak behar dituzte, eta isurien eraketari buruz ezarritako muga kuantitatiboak eta kualitatiboak bete behar dituzte.

Kontrola gauzatzeko prozeduran, isuriak egiteko baimenen titularrek derrigorrez beren baimenetan zehaztutako autokontrolak gauzatu behar dituzte, une oro bermatzeko isuriak emisio mugen balioak betetzen dituela. Analisi kontrol horiek baimenen baldintzetan ezartzen dira, eta erakunde laguntzaileak egiaztatu behar ditu. Bestalde, URA agentziak ikuskaritzak, kontrolak eta analisiak egiten ditu bere isuriak ikuskatzeko plana betez, eta hori guztia isurien baimenean jasotako baldintzak betetzen direla kontrolatzeko. URAk isurien alorrean egindako ikuskaritza guztietatik (2017an 4163 izan ziren), gehienak baimenak betetzen diren edo ez diren kontrolatzeko izan ziren (3528). Gainerako ikuskapenak (635) baimenik gabeko isuriak identifikatzeko egin zituzten, SOS Deiak zerbitzuaren abisuekin batera (449 abisu 2017an). URAk esan du prozedura espezifikoa duela ingurumen gertaeren eta hirugarren abisuen ondorioz sortutako egoera horiek ikuskatzeko, eta bertan, zehaztu egiten dira abisu mota bakoitzean egindako informazioa jasotzeak, ebaluazioak, ikerketak eta jarduketak.

Ertzaintzarekin koordinazioan aritzea. Uraren Euskal Agentziak adierazi du Ertzaintzaren Ikerketa Kriminaleko eta Polizia Judizialeko Atal Nagusiaren Ingurumenaren eta Hirigintzaren Aurkako Delituen Atal Nagusiarekin (aurrerantzean IADAM) aldizka harremanetan egoten direla. Horren ondorioz, Uraren Euskal Agentziak IADAMi jabari publiko hidraulikoan hildako arrainak agertzen diren gertakarien berri eta modu jarraituan gertatzen diren baimenik gabeko isurien berri ematen die.

Isuriei buruzko abisuak. Kalkuluen arabera, 2017an 449 isuri abisu egon ziren, eta azken urteetako abisuen goranzko joera mantendu egin da. 2018ko lehenengo seihilekoan 186 isuri abisu egon ziren (eta 271 ikuskapen egin ziren abisu horiekin lotuta).

Zehapen espedienteak. Jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten baimenik gabeko isuriak detektatzean, teknikariek isuri horri buruzko informazio guztia jasotzen dute, eta titularra edo arduraduna zein den jakinez gero, zehapen espedientea hasteko proposamena egiten da. 2017an zehapen espedienteak hasteko 42 proposamen egin ziren, eta horietatik 18 abisuen bidez sortu ziren. 2018an, ekainaren 30era arte, zehapen espedienteen 38 proposamen ireki ziren, eta horietatik 18 abisuen ondorioz sortu ziren. Bestalde, 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko ekainaren 30era arte hasitako zehapen espedienteak guztira 68 izan ziren (horietatik 34 2018ko ekitaldian), eta gaur egun 37 jada ebatzita daude.

Jabari publiko hidraulikoan sortutako kalte-galerak konpontzea. URAk adierazi du zaila dela jabari publiko hidraulikoan sortutako kalteak baloratzea baimenik gabeko isurien kasuan. Baimenik gabeko isuriak baloratzen dira besteak beste horien arduradunek sortutako kalteak konpondu eta ordaindu ditzaten. Uraren Euskal Agentziak kalte-galerak konpontzeko eskatzen du, estimazio kuantitatibo fidagarria egitea ahalbidetzen duten zehapen espedienteak izanez gero.

Delituak edo faltak eratzten dituzten arau-hausteak. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera Uraren Euskal Agentziak 8 espediente ireki ditu ingurumen delituen jarraipena egitean gauzatzen diren ikerketa diligentzietan informazio eskari ezberdinak jorratzeko. Eskariak probintzia fiskaltzek edo Ertzaintzako Ikerketa Kriminaleko eta Polizia Judizialeko Atal Nagusiko Ingurumen eta Hirigintza Atalak egindakoak dira. Eskari horiei erantzuna emateko eskatutako informazioa bidali zen, eta horien artean nabarmentzekoak dira ikuskaritza txostenak edo baimenik gabeko isuriei buruzko jarduketak, ikuskaritzetan jasotako laginen analisisiei buruzko emaitzak eta txostenak, isuri baimenei buruzko informazioa edo baimenen titularrekin lotutako arazoak. Zenbait eskaritan gainera, alderdi orokorrakoak ere aipatzen dira, besteak beste aplikatu beharreko legezko esparrua eta URA-Uraren Euskal Agentziak salatutako zenbait gertakariengan dituen eskumenak, ikuskaritzen historikoak, administrazio espedienteak, eta abar.

2018ko abenduaren 13an Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Arartekoari jakinarazi zizkion Araian 2018ko urrian Arakil ibaian egindako isurian gauzatutako jarduketak.

Horren arabera, 2018ko apirilean lehenengo salaketa jaso zuten Arakil ibaian zegoen isuri bati buruz. SOS Deiak zerbitzuan deia jaso ondoren, segituan bertara joan ziren Ertzaintzaren Miñoien patruila bat eta Uraren Euskal Agentziaren zaintza teknikaria. Ikuskaritza lanetan parte hartu zuen baita ere Arabako Foru Aldundiko ehiza eta arrantza zaintzaileak. Uraren Euskal Agentziako teknikariak isurien laginak jaso zituen eta zehapen espedientea hasi zuten. 2018ko urrian beste isuri salaketa bat egin zuten, eta horrenbestez, Ertzaintzaren patruilak eta URAko zaintza teknikariak bigarren ikuskaritza egin zuten. Kasuari buruz egindako lehenengo ikerketetan ezin izan zuten isuriaren jatorria zehaztu. Gertakari horien inguruan, Ertzaintzako Ikerketa Kriminaleko Atal Nagusiko Ingurumen eta Hirigintza Arloak ikerketa ireki zuen. Ikerketa horren helburuak isuriaren gertakariak azaltzea, jatorria identifikatzea eta gai kutsatzailea eta ingurumen kalte posiblea zehaztea izan ziren. Txostenaren arabera, ikerketa espedientea konplexua izan daiteke eta Uraren Euskal Agentziak eta Arabako Foru Aldundiak elkarrekin lan egin behar dute. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren txostenean jasota dago etengabeko hobekuntzan lanean jarraitzen dutela, bereziki herritarrei arreta emateko alorrean.

Gomendio orokor horrekin lotuta, Arartekoak probintzia fiskaltzetako ingurumen ataletako ordezkariekin eta Ertzaintzaren Ikerketa Kriminaleko eta Polizia Judizialeko Ataleko Ingurumen eta Hirigintza Ataleko ordezkariekin lan egin du, hala, ibai-ibilguetan egindako isurien delituak eta arau-hausteak ikertzeko eta zigortzeko erakundeen arteko koordinazioa hobetuz.

Horrez gain, gai horretan interesa duten hainbat elkarte ekologistekin bilerak egin dira (Eguzki, Ekologistak Martxan eta Zadorra Bizirik plataforma). Elkarte horiek nagusiki beraiek salatutako isuri kutsatzaileen kontrol eta zehapen jarduketetan parte-hartzearen garrantzia azpimarratzen dute. Horretarako, Arartekoari esku hartzeko eskatu diote ingurumen salaketari buruzko protokoloa sustatzeko eta ibaietan ingurumen ikuskaritza eta kontrol organoek gauzatzen duten esku-hartzea indartzeko.

Hala, Arartekoaren gomendio orokor hau ingurumen kontrola hobetze aldera erakunde honek egin ditzakeen proposamenen baitan sartzen da. Neurri horien artean dago ingurumena ikuskatzeko eskumena duten administrazioen arteko komunikazio protokoloen eta bitartekoen sustapena gauzatzea, eta hori guztia arau-hausteak (administratiboak, legez kontrakoak edo penalak) izan daitezkeen jarduketak edo ez-betetzeak behar bezala hautemateko, ikertzeko eta kalifikatzeko. Administrazio horietan aipagarriak dira, besteak beste, Uraren Euskal Agentzia bera, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren ikuskatze-zerbitzuak, bai eta, hala badagokio, ingurumen-delituen jarraipenean espezializatutako fiskaltzarekiko koordinazioa ere.

Erakundeen jarduketei dagokienez, Legebiltzarraren honako testu honetan jasotako proposamenak aipatu behar dira: 78/2018 Legez besteko proposamena (LBP), ekainaren 28koa, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak onartutakoa, ingurumen esparruan ematen diren arau-hauste eta delituei modu egokian aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzkoa. Proposamenen artean zegoen Eusko Jaurlaritzari eskatzea Ikerketa Kriminaleko eta Polizia Judizialeko Buruzagitzaren menpe dagoen ingurumen delituen taldea indartzea eta bere ikerketa gaitasuna sustatzea. LBPan Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio erakunde arteko batzorde bat eratzeko, non honako organo hauek izango dituzten ordezkariak: Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta udaltzaingoko langileak dituzten udalek; hori guztia, ingurumen arloko arau-hauste eta delituen aurrean jarduteko euskal plana garatzeko. Plan hori urtebeteko epean gauzatu beharko litzateke, eta honakoak jaso beharko lirarteke bertan: jarduketa protokoloak eta prozedurak, administrazio bakoitzaren erantzukizunak, kasu bakoitzean esku hartu zuen agentea, kasuetan parte hartzen duten agentzien arteko koordinazioa eta prozesu operatiboek ingurumen arau-hausteen eta delituen ikerketa beharrekiko duten egokitzapena.

- 2. Baimenik gabeko isuri kutsatzaileak debekatzeko printzipio orokorra.** Ura eta jabari publiko hidraulikoa kudeatzen duen araubidean berariaz zehaztuta dago debekatuta dagoela isuri kutsagarriak gauzatzea aurretiaz administrazioaren baimenik izan gabe.

Uraren Legearen testu bategina onartu zuen uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegilearen 100.1 artikulua hauxe zehazten du: *"Queda prohibido, con carácter general, el vertido directo o indirecto de aguas y de productos residuales susceptibles de contaminar las aguas continentales o cualquier otro elemento del dominio público hidráulico salvo que se cuente con la previa autorización administrativa."*

Uraren Legearen 93. artikulua honela definitzen du kutsadura: *"la acción y el efecto de introducir materias o formas de energía, o inducir condiciones en el agua que, de modo directo o indirecto, impliquen una alteración perjudicial de su calidad en relación con los usos posteriores, con la salud humana, o con los ecosistemas acuáticos o terrestres directamente asociados a los acuáticos; causen daños a los bienes; y deterioren o dificulten el disfrute y los usos del medio ambiente"*. Lege horren ondorioetarako, jabari publiko hidraulikoa narriatzearen kontzeptuaren barne dago baita ere jabari publikoan kalteak sortzea.

Isuriaren baimena ezarritako ingurumen helburuak lortzearekin bat eginez gauzatu behar da. Aipatu behar da uren politikaren alorrean jarduteko erkidego esparrua arautzen duen 2000/60/CE zuzentarauaren 10. artikuluan jada ezarrita zegoela estatu kideek kontrolatu egin behar zituztela gainazaleko uretan sortutako isuriak eta emisioak. Horretarako, lehenasunezko substantziekin

gauzatutako kutsadura progresiboa murriztea eta isuriak, emisioak eta lehentasunezko substantzia arriskutsuen galerak modu graduatuan etetea edo deuseztatzea proposatzen da, 2013ko abuztuaren 12ko 2013/39/UE zuzentarauak ingurumen araei eta lehentasunezko substantziei dagokienez zehaztutakoaren arabera. Bere aldetik, Kontseiluaren 1991ko maiatzaren 21eko 91/271/CEE zuzentaruaren bidez hiriko hondakin uren eta zenbait sektore industrialetako uren tratamenduari eta isuriari buruzko betekizunak ezarri ziren. Modu horretan, isuriaren baimenak emateko kontuan hartuko dira eskuragarri dauden teknika onenak, eta bat egingo da ingurumen kalitateko arauarekin eta indarrean dagoen Gainazaleko uren egoeraren jarraipenaren eta ebaluazioaren eta ingurumen kalitateko arauen irizpideak ezartzen dituen irailaren 11ko 817/2015 emisio mugekin.

Era berean, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 29. artikuluan (aurrerantzean Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Legea) ezarrita dago bere eskumeneko erkidego barneko arroetan isuriak egiteko debekua, salbuetsiz aurretiaz administrazioak eta Uraren Euskal Agentziak berariazko baimena eman izana.

Laburbilduz, legezko debekua dago aurretiaz administrazioaren baimenik jaso ez duen isuri kutsatzaileak gauzatzeko, edo legez debekatuta dago baita ere isuri kutsatzaileek administrazio baimenak ezarritako baldintzak ez betetzea.

- 3. Isuriak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenak.** Uraren poliziaren funtzioen artean dago jabari publiko hidraulikoa ikuskatzea eta kontrolatzea, eta uraren polizia kudeatzea konfederazio hidrologiko bakoitzaren arro organismoen uraren komisariotzen eskumenen barne dago.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Uraren Euskal Legean jasota dago erkidego barneko arroetan eta erkidego artekoetan, estatuko administrazioak agindutako terminoetan<sup>1</sup>, diziplina hidraulikoko eskumenak URA-Uraren Euskal Agentziak egikaritutako dituela. Agentziaren funtzioen artean, 7. artikuluan jasota dago jabari publiko hidraulikoa babestu beharra, batez ere administrazio baimenak eta emakidak eskaintzea, baita jabari publiko hidraulikoa arautzen duen araudiaren kontrako arau-hausteak zaindu, ikuskatu eta zigortzea ere.

**Ikuskaritza organoak.** Euskal Autonomia Erkidegoko erkidego barneko arroetan eta erkidego artekoetan estatuko administrazioak esleitutako terminoetan, ikuskaritza lana Uraren Euskal Agentziak gauzatu beharrekoa da ingurumen poliziako eskumenak dituzten polizia agenteekin lankidetzan, hau da,

---

<sup>1</sup> 2015eko abenduaren 23ko lankidetzaren hitzarmena, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren, Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Uraren Euskal Agentziaren artekoa. Horren bidez, hainbat jardura agintzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko erkidego arteko arroetako jabari publiko hidraulikoan.



Ertzaintzarekin, basozainekin, udaltzainekin edo eskumenak dituzten bestelako poliziaekin batera lan eginez<sup>2</sup>.

URA-Uraren Euskal Agentziak erkidego barneko arroetan dituen eskumenen alorrean jarduten du, baita Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoen aginduak oinarri hartuz ere, eta hala, jabari publiko hidraulikoa eta bere zortasun eta ibilguen polizia eremuak zaintzeko lankidetzan aritzen dira ikuskatzaileen bitartez. Aipatu behar da Euskal Herriko Uraren Legearen 8.3. artikuluan zehaztuta dagoela eskumen publikoak egikaritzen dituzten lanpostuak funtzionarioentzako gordeko direla. Gaur egun, ur ikuskatzaile horiek, langile publikoak diren heinean, ez dute egiaztatuta izango agintaritzako agente izaera ondorio horietarako.

Azpimarratu behar da Uraren Legearen 94. artikuluan arautu egiten direla ingurumen agenteen eta ibaietako zaintzaileen zereginak, arro organismoen barnean. Ingurumen agenteak agintaritza agenteak dira, eta ikuskaritza eskumenak dituzte, ikerketa diligentziak gauzatu ahal dituzte eta frogak hartu ahal dituzte. Era berean, lege horren arabera, ingurumen agente funtzionarioek jasotako gertakariak aktetan formalizatu beharko dira eta ziurtasun presuntzioa izango dute. Ibai zaintzaileek ingurumen agenteei laguntzeko zeregina dute, horiek ur polizien funtzioak egikaritzen dituztenean.

Ikuskaritza eta zaintza lanak egiteko administrazio ezberdinetako agenteak daude funtzio ezberdinekin, eta horren ondorioz, URA-Uraren Euskal Agentziaren eta Ertzaintzaren Ingurumen Babeserako Zerbitzuaren, basozainen eta udaltzaingoaren arteko lankidetzak sustatu egin behar da.

Beraz, erakunde honek proposatzen du URA-Uraren Euskal Agentziaren, Ertzaintzaren eta beste agenteen artean dauden koordinazio neurriak protokolo batean jasotzea hitzarmen baten bidez, eta horrekin, ibaien ingurumen zaintzako koordinazio mekanismoak sendotuko dira eta segurtasun juridikoa emango zaie.

Koordinazio horren oinarria printzipio batzuetan zehaztu behar da, besteak beste organo ikuskatzaile bakoitzaren eskumen materiala eta funtzionala, espezializazioa, eskuragarri dituen bitartekoak eta agintaritzako agenteak berrikusi beharreko ingurune naturalarekiko duten hurbiltasuna. Era berean, Euskal Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 5.3. artikulua aipatu behar da. Bertan zehaztuta dago Ertzaintzak tokiko poliziaekin duen koordinazioa sustatzeko eskumena Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarena dela.

---

<sup>2</sup> Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 26. artikuluan ezarrita dago Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenei dagokienez, Ertzaintzak gauzatuko dituela antolamendu juridikoak Segurtasun Kidegoei agintzen dizkien funtzioak. (Estatuko segurtasun indarrei eta kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 12. eta 38.3. artikulua).

**Ikuskaritza prozedura.** Ikuskaritza prozedura modu programatuan gauzatuko da, eta aurretiaz onetsitako ikuskaritza plana jarraituko da.

Era berean, salaketa zehatzen ondorioz sortutako programatu gabeko ikuskaritzak ere egiten dira. Uraren araubideak ematen duen ikuskaritza eskumena egikaritzean, aurkezten diren salaketa bakoitzeko sailkapen eta erantzun egokia eman behar da, eta nabarmendu egin behar da baimenik gabeko isuriak egon daitezkeela edo ingurumenarentzako arriskutsuak izan daitezkeen isuriak egon daitezkeela. Horri dagokionez, salatutako gaien larritasuna aztertu ondoren, eskumenak dituen organoak berehala zehaztu behar du ikuskaritza egiteko beharra, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araubidearen (JPA) 326 ter artikuluan ezarritako prozedurarekin bat eginez eta laginak hartzeko arauei dagokienez.

Azken xedapen horren arabera, laginak hartzeari buruzko protokoloa zehatzen da, eta administrazio arau-haustea izan daitekeen jabari publiko hidraulikoan egindako isurien ebidentziak, isuriei buruzko barneko edo kanpoko salaketak edo bestelako informazioak baldin badaude, arto organismoetako eskumenak dituzten langileek ofizioz jardungo dute, eta ez da horri buruzko akordio formalik egon beharko titularra identifikatzeko eta laginak hartzeko.

Ikuskaritza bisiten ondoren, eskumenak dituzten organoek txostena edo akta egin behar dute eta isuriaren laginak hartu beharko dituzte. Bertan jaso beharko dute isuriak baimena duen edo ez, eta uraren kalitatean sortutako kalteak ere zehaztu beharko dituzte. Isuriak baimena izanez gero, baldintzak betetzen direnari buruzko balorazioa egin beharko da.

Garrantzitsua da aipatzea beharrezko ikuskaritza bitartekoak izatea ezinbestekoa dela, eta horiek gainera proportzionalak izan beharko dira, aurkeztutako salaketen aurrean erantzun egokia emateko. Horretarako, administrazioek bitarteko tekniko eta giza baliabide egokiak izan beharko dituzte, hau da, frogak, laginak edo seinaleak jasotzeko baliabideak, modu objektiboan egiaztatu dadin isuri baimenean ezarritako ingurumen baldintzak zein mailatan errespetatu diren.

Ikuskaritza arduradunak salaketa bidali beharko du eskumenak dituen organora aktarekin eta gainerako laginekin batera, eta hark dagokion zehapen prozedura hasiko du.

**4. Herritarrek isuriak ikuskatzeko eta kontrolatzeko duten zeregina.** Ingurumen ikuskaritza eta kontroleko eskumenak egikaritzean oso garrantzitsuak diren beste eragile batzuk herritarrak dira, izan ere, administrazioari laguntzen diote zaintza lanak egiten abisuen, jakinarazpenen, salaketen eta abarren bidez.

Erreklamazio batzuetan zehaztutako kasuetan, elkarte salatzaileek adierazi dute isuriari buruzko abisuen ondoren zailtasunak izan dituztela arrazoizko denboraren barne jakiteko zeintzuk izan diren eskumenak dituzten organoek gauzatutako administrazio izapidetzeak eta jarduketak.

**Isuriaren berri ematea SOS Deiaken bidez.** Akats horiek SOS Deiaken koordinazio zentrori telefono bidez egindako abisuetan eta salaketetan sortzen dira. Kasu horietan, telefono bidezko kexek eta salaketek arazoak berri berehala jakiteko eta horiei erantzuna emateko balio dute, betiere larrialdizko gertakariak baldin badira. Edonola ere, jakinarazpen horien ondoren, elkarteek nabarmendu dute beti ez dela egoten abisuaren edo salaketaren ondoren gauzatutako administrazio jarduketei buruzko informazioa ematen duen erantzunik.

Egia da administrazio bakoitzak gauzatutako jarduketei buruzko jakinarazpenak bermatzen dituen protokoloa zehaztea zaila dela. Zaila da larrialdiak koordinatzeko zentroan erabiltzen duten erreklamazio sistema dela-eta. Salaketa mota horietan berehala SOS Deiaki jakinarazi behar zaio kutsadura arazoa dagoela, zerbitzu horretan lehenengo balorazioa egin ahal izateko, eta hala badagokio, larrialdi, ingurumen eta osasun publikoko alorretan eskumenak dituzten administrazioek modu koordinatuan erantzun ahal izateko. Hala ere, larrialdi zerbitzuen koordinazioak edo telefono zerbitzuak ez du oztopatu behar esku hartzen duen administrazioak administrazio prozeduratik eratorritako beharrak betetzea.

Orokorrean, administrazio publikoek, herritarrekiko harremanetan, administrazio prozeduraren bidez bideratu behar dituzte euren eginkizun publikoak. Administrazioak horrela jokatzek bi helburu ditu: alde batetik, administratuen eskubideen bermea izatea, eta bestetik, interes publikoa bermatzea.

Administrazio izapideak dauden eta herritarrei benetan erantzuten zaien bermea Espainiako Konstituziotik bertatik dator (103.1. eta 105. artikulua), eta herritarrek administrazio ona izateko duten eskubidearen barne dago (eskubide hori Lisboako Itunak ezarritako Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua jasotzen du).

Administrazio egokirako eskubideari dagokionez, aipatzekoak dira aurkeztutako idazkiak jaso izanaren agiria emateko, horiek ofizioz bultzatzeko eta jasotako gaiei berariaz erantzuteko betebeharrak. Halaber, administrazioak euren nahiari buruz erabil ditzaketen eskubideen berri eman behar die herritarrei. Interesdunaren kexaren edo uziaren gaineko zehaztasunik ezak edo erreklamazioak bere jarduketa eremua gainditzeak ez du administrazio publikoa bere betebeharrak betetzetik salbuesten.

Horri dagokionez, administrazioan aurreikusitako edozein formatutan (idatziz, telefono bidez, fax bidez edo mezu elektronikoa bidez) erreklamazio bat aurkeztean, kexagileak salaketa bat formalizatzeko aukera izan behar du, betiere bere helburua administrazioari horren berri ematek haratagokoa baldin bada.

Testuinguru horretan, administrazioak herritarren nahia bideratzen ahalegindu behar du ordenamendu juridikoak finkatutako prozedura zehatzetan. Administrazioaren funtzionamendua arautzen duten printzipioek, besteak beste, antiformalismoari, asmo onari edo bidezko konfiantzari lotutakoek, administrazioari aukera ematen diote jakinarazpen horiek berriazko prozedurara berbideratzeko.

Printzipio horiekin bat eginez, SOS Deiaken egindako jakinarazpenek eta ondoren beste erakunde batzuetara idatziz bidalitakoek (ingurumena babesteko zerbitzuak, URA-Uraren Euskal Agentzia edo udalak) kontsiderazio bikoitza izan dezakete.

Alde batetik, deia egitean arazo bat jakinarazten da arazo hori baloratzeko eta hala badagokio, modu koordinatuan beharrezko kontrol eta ikuskaritza neurriak ezartzeko. Herritarrek larrialdiak koordinatzeko zerbitzuari arazo baten salaketa/jakinarazpena egitean, prozedurak bermatu egin behar du SOS Deiaken zerbitzu gutunean jasota dagoen moduan,<sup>3</sup> larrialdiaren izapidetze egoeraren berri izateko eskubidea; hau da, zerbitzu horrek egindako jarduketak, beste administrazio batzuetara egindako jakinarazpenak edo bidalketak, edo hala badagokio, izapidetzea artxibatu izana jakinarazi behar dira. Jakinarazpen hori ofizios egin behar da -salaketa jarri duenak erabilitako bitarteko berdinarekin-, salbuetsiz kexagileak berriaz eskubide horri uko egin izana lehenengo jakinarazpenean.

Bestalde, deia egiten duen pertsonak salaketa formalizatzeko aukera du urari buruzko legezkoatasuna ustez urratu izana salatzen. Administrazioari jakinaraztean ingurumenean egindako kalteak salatu nahi badira edo isuri kutsatzailearen ondorioz pertsonen osasuna kaltetu izana salatu nahi baldin bada, horiek ingurumen salaketa gisa sailkatuko dira, eta horrenbestez, beharrezko datu pertsonalak eman ondoren eta administrazio prozeduran aurreikusitako terminoetan adierazi ondoren, salaketa izapidetzeak egiteko eskumenak dituen organora bidaliko dira.

**Ingurumen salaketak.** Salaketa egintza bat da, zeinaren bidez edozein pertsonak, legezko betebeharrak batez besteko, administrazio organo bati jakinarazten baitio badela egitate bat administrazio prozedura bat hastea justifika lezakeena. Salaketetan salatzailearen nortasuna, administrazio arau-haustea izan daitezkeen eta administrazioari jakinarazitako gertakarien kontakizuna, ustezko arau-haustearen eguna, eta posible denean, ustezko erantzuleen identifikazioa jaso beharko dira.

<sup>3</sup> <https://www.euskadi.eus/carta-servicios-emergencias/web01-a2larri/es/>

Interesatu gisa aurkezten den pertsona batek isuri bat alegatzen duenean ingurumena<sup>4</sup> babesteko ekintza publikoa egikaritzuz, pertsona horrek administrazio espediente bat izapidetzeko administrazio eskumendunak kontuan hartu beharreko eskubide eta betebeharrak batzuk ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako arauak jarraituz.

Ingurumen salatzaileak ekintza publikoa du ingurumen legeria urratzen denean kontrola gauzatzeko agintaritzak publikoek dituzten eskumenetatik eratorritako administrazio prozeduretan jarduteko. Ekintza publiko horrek aukera ematen die pertsona horiei interes kolektiboaren defentsan interesdun gisa edo interes sozial edo kolektiboko elkarte gisa esku hartzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 4. artikuluan aitortutako baldintzetan.

Era berean, herri ekintza egikaritzean ingurumen legeria urratzen duten eta agintaritzak publikoek egotzi dakizkieken ekimen eta ez egiteak errekurrizko eskubidea sortzen da, Ingurumen gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegiara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 3. artikuluan xedatuta dagoenari jarraiki.

Nolanahi ere, salatzaileek, ekintza publikoa egikaritzeko bidea ematen duen prozeduran interesdun izateko eskaera egin ez badute ere, eskubidea dute espedientea abiarazi dela jakinaraz diezaieten, argudiatuz gero jarduketa horrek ondare publikoari kalte egin diezaiokela. Horixe da, hain zuzen ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 62.3. artikulua kasua, honako hau baita: *“Salaketak administrazio publikoaren ondarearen kalte bat argudiatzen duenean, prozedura ez hastea arrazoitu egin beharko da, eta salatzaileei jakinarazi beharko zaie beti prozedura hasteko edo ez hasteko erabakia”*.

Halaber, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa) 34. artikulua aipatu behar da, hauxe ezartzen baita: *“Organo eskudunak jardunbidea irekiko duen edo ez eta, hala badagokio, jardunbide horri amaiera emango dion ebazpena jakinaraziko dio salatzaileari, honek horretarako eskubidea du-eta”*.

---

<sup>4</sup> 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, 3.2 artikulua Euskal Herriko ingurugiroa babesteko legea. Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente (incorpora las Directivas 2003/4/CE y 2003/35/CE).

**Salatzailea babestea.** Ingurumen arrisku berriak direla-eta herritarrek (partikularrek eta elkarte ekologistek) geroz eta gehiago lan egiten dute ingurumena babesten, eta ingurumen poliziarekin duten lankidetzaz geroz eta handiagoa da. Horretarako, administrazioak berak ekarpenak egin behar ditu, salatzailearen izaera aintzatesteko lan eginez eta ibaien kontrolean esku hartzen duten eragile publikoek informazio eta aholkularitza gehiago ematea sustatuz. Ingurumen eskubidea urratu izana salatzen duen pertsona laguntzailea da, interes publikoa defendatzen duena, eta balioan jarri beharko lirartekeen onura sozialak sortzen dituen legezketasuna defendatzearen alde egiten du.

Hala, aipatu behar da Europar Batzordeak zenbait ekintza proposatu dituela ingurumen betearazpena eta gobernantza hobetzeko, eta erronka ingurumen delituak eta arau-haustekak detektatzea da, horiek ez betetzeak interes publikoan arazo larriak sortu ditzakeelako<sup>5</sup>. Salatzaileak (edo Whistleblower zuzenbide anglosaxoian) aipatzen dira orain dela gutxi onetsitako 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 Zuzentarauan; zuzentaru hori Batasuneko Eskubideen aurka egindako arau-hausteei buruz informazioa ematen duten pertsonen buruzkoa da<sup>6</sup>. Testuinguru hori kontuan hartuz, Europar Batasuneko zuzentaruaren arabera, estatu kideek neurriak ezarri behar dituzte salatzaileak babesteko, salatzaileak mekanismo erabilgarria baitira ingurumen alorrean dauden neurriak betetzen direla bermatzeko, eta horixe da 2000ko urriaren 23ko 2000/60/CE Zuzentarauan gertatzen dena; horren bidez erkidegoan esparrua eratzen da uraren politiken alorrean jarduteko. Modu horretan, eta 2019/1937 zuzentaruak aldatzeko zain gaudela (gehienez ere 2021eko abenduaren 17an egingo da), hori indarrean jartzea eta zuzentasunez aldatzea eta salatzaileak babesteko neurriak interesekoak dira Arartekoaren gomendio orokor hau egiteko; gomendioaren xedea hobekuntzak proposatzea da ingurumen arau-hausteen salaketak izapidetzeko eta baita herritarren parte-hartzea sustatzea ura kutsatzen duten isuri kutsagarriak kontrolatzeko prozeduretan ere.

Babes neurri horien artean dago salaketak egiteko kanpoko bitartekoak eta prozedurak ezartzeko beharra. Salaketak egiteko kanpoko bitartekoak independenteak, autonomoak, seguruak eta konfidentzialak izan behar dira salatzaileek emandako informazioa jasotzeko eta tratatzeko. Bitarteko horien bidez, gutxienez jakinarazpenak egingo dira, eta horretarako idatzizko salaketa bat egingo da, formatu elektronikoan edo paperean; horrez gain, telefono bidez egindako salaketa ere egin ahalko da, grabatua edo grabatu gabea, edo eskumenak dituen agintaritzako langile espezifikoekin bilerak egin ahal izango dira. Eskumenak dituzten agintaritzen beharra izango da baita ere banatutako atal batean (erraz identifikatu daitekeena eta webguneetan eskuragarri

<sup>5</sup> EBk ingurumen gobernantza hobetzeko eta betetzeko ezarritako ekintzak, SWD (2018) 10 azkena.

<sup>6</sup> Salatzaileek, hau da, erakunde baten barnean edo kanpoko agintaritza batean lanean jasotako ekimen gaitzesgarriak jakinarazten dituztenek edo jendaurrean adierazten dituztenek, kalteak prebenitzen laguntzen dute eta interes publikoarentzako mehatxuak edo kalteak detektatzen dituzte, beste era batean ezkutuan geratuko lirartekeenak.

dagoena) informatzaileak babesteko baldintzei buruzko informazioa ematea, salaketak aurkezteko eta izapidetzeko komunikazio bitartekoen berri ematea eta seguruak diren eta konfidentzialtasuna bermatzen duten helbide espezifikoak zehaztea, informazio hori tratatzeko beharra duten langileekin harremanetan jartzeko. Estatu kideek zaindu egin beharko dute eskumenak dituzten agintaritzek prestakuntza duten langile espezifikoak izatea, eta horiek izapidetuko dituzte salaketak. Langile espezifiko horien funtzioa salaketa prozedurei buruzko informazioa ematea izango da; salaketak nola jasotzen eta izapidetzen diren azalduko dute gainera, eta informatzaileekin harremanetan egongo dira ikerketari buruzko informazioa eta emaitzak emateko. Mekanismoak ezarri behar dira salatzaileari salaketaren izapidetzearen berri emateko arrazoizko epe baten barnean, hiru hilabeteren barruan, edo sei hilabeteetan, zuzentasunez justifikatutako kasuetan. Zuzentarauan debekatu egiten dira errepresaliak, eta mekanismoak daude ezarrita salatzaileak zigortuak, kaltetuak edo beldurtuak izan ez daitezzen. Salatzaileei laguntzen dieten pertsonak ere babesa jasoko dute. Estatu kideek bermatu egin beharko dute salatzaileek izapideei eta irtenbide posiblei buruzko informazioa eta orientabideak jasotzea, baita legezko aholkularitza egokia jasotzea ere prozedurak irauten duen bitartean.

- 5. Isurien araubidea ez betetzearen zehapen eskumena egikaritzea.** Aipatu behar da legezko aurreikuspen horiek betetzen ez badira isuri kutsatzaileei dagokienez, diziplina hidraulikoko eskumenak egikaritutako direla, jabari publiko hidraulikoa arautzen duen legerian xedatutakoarekin bat eginez.

Uraren Legearen 116.g) artikuluan jasota dago administrazio arau-haustea dela isurien debekua ez betetzea, Uraren Legearen 100. artikuluan xedatuta dagoena hain zuzen ere. Artikulu horren f) atalean berariaz jasota dago hauxe: *"Los vertidos que puedan deteriorar la calidad del agua o las condiciones de desagüe del cauce receptor, efectuados sin contar con la autorización correspondiente"*.

Modu horretan, Uraren Legearen 105. artikuluan eta Jabari Publiko Hidraulikoko Araubidea onesten duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren 263. artikuluan (aurrerantzean JPA), jarduketa arau gisa zehaztuta dago baimenik gabeko isuri bat dagoela egiaztatzean edo baimenaren baldintzak betetzen ez dituen isuria dagoela jakitean, arro organismoak honakoak egin beharko dituela: *"Incoará un procedimiento sancionador y procederá a la determinación del daño causado a la calidad de las aguas"*. Isuriak sortutako kaltearen arabera zehapenak arinak (3.000,00 € baino gutxiagokoak), ez hain larriak (3.000 eta 15.000 € artekoak), eta larriak edo oso larriak izango dira (15.000€ eta 150.000 € artekoak).

Dagokion zehapen espedientea albo batera utzi gabe, administrazioak isuria baimendu behar du, betiere sustatzaileak hala eskatuz gero eta legeztatu daitekeen isuria izanez gero.

Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Legearen 29. artikulua ere isurketak egitea debekatzen du, Uraren Euskal Agentziak alde aurreko baimena berariaz eman ezean. Modu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Legearen 55. artikuluan arau-hauste arintzat jotzen dira uraren kalitatea edo inguru jasotzailearen ingurumen baldintzak edo hidraulikoak kaltetu ditzaketen isuriak, baimenik gabe egindakoak, eta betiere jabari publikoan sortutako kalteak 15.000 € baino gutxiagokoak baldin badira.

**Zehapen eskumenak.** Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 25. artikulua eta ondorengoek adierazten duten moduan, zehapen eskumena egikaritzea eskumen hori berariaz esleituta duten administrazio erakundeei dagokie.

Autonomia Erkidegoko lurralde eremua gainditzen duten arro hidrografikoetan, zehapen eskumenak egikaritzeko beharra arro organismoko presidentek izango du. Arau-hauste arinak eta ez hain larriak zigortzea arro organismoari dagokio. Ingurumen ministroaren eskumena izango da arau-hauste larriak zigortzea, eta Ministroen Kontseiluak arau-hauste oso larrien isunak ezarriko ditu.

Erkidego barneko ibilguzari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Legearen 15 c) artikuluan zehaztuta dago URaren zuzendaritzak izango duela zehapen eskumena egikaritzeko beharra, arau-haustek arinak eta larriak direnean. Horrez gain, hala dagokionean, zigor juridikziora beharrezko espedienteak bidali behar ditu.

Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoen ahalmenei dagokienez, estatuko administrazioak hitzarmen bat sinatu du, Uraren Euskal Agentziari honako zeregin hauek kudeatzeko ardura emateko: jabari publiko hidraulikoari lotutako polizia, zaintza eta kontrol lanak egitea eta zehapen espedienteak izapidetzea ebazpen proposamena egin arte.

**Zehapen eskumenak egikaritzeko prozedura.** Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Legean araututako zehapen eskumena egikaritzeko Uraren Euskal Agentziaren organoak erabiliko dira, horretarako eskumenak dituztelako, aplikatu beharreko zehapen prozedurari buruzko araubidearekin bat eginez.

Horri dagokionez aipatu behar da zein den jarraitu beharreko prozedura eskumenak dituen administrazioak bere bitartekoen edo salaketen bidez jakiten duenean baimenik gabeko isuri bat egin dela edo ezarritako baldintzak betetzen ez dituen isuria dagoela.



Kasu horretan, JPAREN 328. artikulua aipatu behar da: bertan zehaztuta dago zehapen espedientea arroko organismoak hasiko duela ofizioz edo gorengo mailako agindua edo salaketa dagoenean.

Salaketak modu boluntarioan egingo dituzte pertsonak edo erakundeak, eta derrigorrez egin beharko dituzte ura ikuskatzeko eta zaintzeko beharra duten langile publikoak, arro erakundeko ibai zaingoak edo agintaritzako agenteak.

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 63. artikuluan zehaztuta dago zehapen prozedurak ofizioz hasiko dituztela eskumenak dituzten organoek eta instrukzio fasearen eta zehapen fasearen arteko banaketa ezarriko dutela; fase horiek organo ezberdinek gauzatu beharko dituzte.

Horrenbestez, administrazio espedientea abiaraztea erabakitzea eskumena duen administrazio organoari dagokio edonola ere. Erabaki hori behar beste arrazoituta egongo da, aktan jasotako egitateekin bat etorriko da, eta ordena publikoko nahiz legezketasuna defendatzeko arrazoietan oinarrituko da aukerako edo beste maila bateko irizpideak alde batera utziz.

Erabaki hori ez da inoiz aukeran oinarrituko, legezketasun zorrotzean baizik. Administrazioaren zigortzeko ahalmena gauzatzeko derrigortasuna Espainiako Konstituzioaren 9.3. artikulutik eratorritako legezketasun printzipioaren eta arbitrariotasuna debekatzearen printzipioaren ondorio saihestezina da. Auzitegi Gorenak, 1999ko maiatzaren 4ko epaian (646/1994 Errekurtsoa) honako hau adierazi zuen: *"el principio de legalidad, de sometimiento pleno a la Ley y al Derecho, que gobierna la actuación de las Administraciones Públicas, impone la corrección de las infracciones administrativas que hayan podido cometerse"*

**Kautelazko neurriak.** Arrazoitutako erabaki bidez, eskumenak dituen organoak beharrezko kautelazko neurriak ezarri ahal izango ditu azken ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko eta kalteek irautea galarazteko edo kalteak arintzeko (jarduera egiteko eskubidea aldi baterako etetea edo isuri baimena etetea edo fidantza ezartzea). Zehapen espedientea izapidetzeko eta ebazteko gehieneko epea urtebetekoa izango da hasi denetik aurrera zenbatzen hasita.

**Agindua.** Legezketasun printzipio hori betez, administrazio publikoak legea aplikatzera behartuta daude. Horretarako, zehapen espedientea egikaritzeari dagokion administrazio izapidea gauzatu behar da, espedientea ebatzi arte ofizioz sustatzearen bitartez.

Nolanahi ere, arau-haustea eta zehapen erantzukizuna ezin dira dagokion zehapen prozeduraren izapidetzea alde batera utzirik zehaztu. Horrenbestez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89. artikulua araberak, egitateak, kalifikazio juridikoa, arduraduna eta proposatzen den zehapena zehaztea zehapen prozeduraren instrukzio egilea den organoari dagokio.

Administrazioaren zehapen espedienteek egitateak behar bezala zehazteko eta kalifikatzeko balio behar dute. Modu horretan, instrukzio erakundea izango da frogatutako egitateak behar bezala zehazteko eta arau-haustek kalifikatzeko erakunde eskumenduna. Instrukzio fase horretan planteatu behar dira beharrezko frogak, eta horietan, agintaritza agenteek egindako ikuskaritza aktek egiazkotasun presuntzioa izaten dute. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak martxoaren 19ko 228/2018ko Epaian adierazten duen moduan, *“inputazio, erantzukizun eta erruduntasun epaia inputazioa ustezko erantzulearekin lotu daitekeen datu objektiboen bidez egin behar da”*. Edozein kasutan ere, instrukzio eta zehapen erakundeek hartutako erabakiek bat etorri behar dute behar bezala egiaztatutako egitateekin eta zehapen araudian bildutako aurreikuspenekin.

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89. artikuluan aurreikusita dago instrukzio organoak, dagokion zehapena ezartzeko inguruabar erabakitzaileak gertatu izanaren arabera, ebazpen proposamena (interesatuei jakinarazi beharko zaiena) edo prozeduraren bukaera gauzatu beharko dituela, jarduketak artxibatuz.

**Ebazpena.** Zehapen prozedurak ebaztean, gertakariak definitzeko egindako frogen balorazioa azaldu beharko da, arduraduna zehaztu beharko da, gauzatutako arau-haustea adierazi beharko da, baita ezarri den zigorra ere, eta hala badagokio, arau-hauste edo erantzukizun administratiborik ez dagoela aitortu beharko da.

Modu horretan, administrazio publiko batek izan ditzakeen zalantzak dagokion administrazio espedienteetan ebatzi behar dira.

- 6. Ingurumen kaltea konpontzea.** Ikuskaritza eta zehapen eskumena egikaritzearen prozedura osagarri gisa, diziplina hidraulikoko espedientea hasi beharko da isuria egiteko baimenik ez baldin bada egon, eta gainera, agindua eman beharko da jabari publikoan sortutako kalte-galerak konpontzeko. Uraren legerian jasota dago isuriaren arduradunak sortutako ingurumen kaltea konpondu beharko duela. Ezartzen diren zehapenak albo batera utzita, Uraren Legearen 118. artikuluan zehaztuta dago arau-haustea gauzaten dutenei jabari publikoan sortutako kalte-galerak konpontzeko eskaria egin ahalko zaiela, baita gauzak zeuden egoeran uzteko ere, eta hori posible ez denean, dagozkien kalte-ordainak zehaztuko dira.

Bere aldetik, JPAren 323. artikuluan zehaztuta dago baita ere kalte-ordainak ezartzeari dagokionez, zehapenak albo batera utzita, arau-hausleek gauzak zeuden bezala utzi beharko dituztela, eta hori posible ez denean, jabari publiko hidraulikoan sortutako kalte-galerak indemnitzatu beharko dituztela. Horretarako, zehapen organoak kalte-galeren ondoriozko indemnizazioak ezarriko ditu, araubide honetako 326tik 326 quater artikulura artean jabari publiko hidraulikoko kalteak baloratzeko irizpideekin bat eginez.

Horrez gain, artikulua horretan jasota dago ingurumenean ondorio negatiboak sortzen dituzten kalteak konpontzeko Ingurumen erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean ezarritakoak kontuan hartuko direla.

Modu horretan, konponketa horren oinarria berariazko espediente bat izan daiteke, eta espediente horren xedea arduradunari kalteak konpontzeko eskatzea izango da. Kalteak sortu dituenak horiek konpontzeko beharrezko ekintzak gauzatzen ez baldin baditu, egikaritze subsidiarioa gauzatuko da, arau-hausleari aurretiaz horren berri emanaz, eta epe bat ezarriko da modu boluntarioan egikaritu ahal izateko.

Horrez gain, URA-Uraren Euskal Agentziak isun hertsagarriak ezarri ahal izango ditu ebazpenak egikaritzeko arau-haustek gertatuz gero, bereziki jabari publikoan sortutako kalteak konpontzeari dagokionez. Jabari publikoan sortutako kalteak konpontzeko berrezartzeko aginduak hamabost urteko epean preskribatuko dira.

**7. Ingurumen erantzukizuna.** Ingurumen erantzukizunari buruzko 2004ko apirilaren 21eko 2004/35/CE Zuzentaraua aldatu zuen Ingurumen erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen aurreikuspenak aipatu behar dira, ingurumen kalteak prebenitzeari eta konpontzeari dagokionez. Ingurumen erantzukizun hori bateragarria da zehapen penalekin eta administrazio zehapenekin. Lege horretan objektiboa eta mugagabea den ingurumen erantzukizuneko administrazio araubidea ezarrita dago, eta araubide hori prebentzio printzipioetan oinarrituta dago, eta horren arabera, «kutsatzen duenak ordaindu behar du». Ingurumen erantzukizunean kalteak konpontzeko derrigortasuna ezarrita dago (edo hala badagokio prebentzio derrigortasuna), eta hori eragile arduradunaren erantzukizuna da, kaltetutako baliabide naturalak jatorrizko egoerara bueltatu behar dituelarik, ekintza prebentiboen edo konpontzaileen kostu guztiak ordainduz.

3. artikuluan erantzukizun objektiboko araubidea dago zehaztuta, eta hori ingurumenean kalteak sortzen dituenari edo etorkizunean kalteak sortuko direnari buruzko mehatxuak egiten dituenari ezarri behar zaio, eta hala, pertsona horrek, legean araututako **prebentzio neurriak, saihestekoak** edo **konpontzaileak** ezarri beharko ditu. Erantzukizun hori duten eragileen zerrendaren barne daude gainazaleko uretan, lur azpiko uretan edo itsasoan isuriak egiten dituzten jarduera ekonomikoak edo profesionalak gauzatzen dituztenak. III. eranskinean jasota daude honakoak sortzen dituzten eragileak: *"El vertido o la inyección de contaminantes en aguas superficiales o subterráneas sujetas a permiso, autorización o registro de conformidad con el Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas."*

Ingurumen kalteak dira baita ere uretan ondorio negatibo garrantzitsuak sortzen dituzten kalteak, lurzoruan sortutako kalteak, itsasertzean eta ibaiertzetan egindako kalteak eta Espainian modu iraunkorrean edo aldi baterako dauden flora eta fauna espezieetan sortutako kalteak, baita tokiko basa espezie autoktono guztietako habitatetan egindako kalteak ere.

Uretan sortutako kalteei dagokienez, kontuan hartu behar dira ondorio negatibo garrantzitsuak sortzen baldin badira<sup>7</sup> uraren egoera ekologikoan, kimikoan, kuantitatiboan eta potentzial ekologikoan<sup>8</sup>.

Espezieetan eta horien habitatetan sortutako kalteei dagokienez, kaltearen garrantzia espezieen edo habitaten aldeko kontserbazio egoera lortzeko edo mantentzeko aukeretan kontrako ondorioak sortzearekin lotuta dago<sup>9</sup>.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ingurumen erantzukizuneko prozedurak izapidetzeko eta ebazteko eskumenak dituen ingurumen organoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila da,<sup>10</sup> albo batera utzi gabe flora eta fauna eta babestutako espazio naturalak kudeatzeko ardura duten foru organoen eskumenak.

Era berean, urriaren 23ko 26/2007 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian zehaztuta dago eskumenak dituen agintaritzak Fiskaltzan jakinarazi beharko dituela lege horretatik eratorritako ingurumen erantzukizuneko inguruabar guztiak. Horrez gain, aintzatetsita dago Fiskaltzak hauetarako legitimazioa duela: *“procesos contencioso-administrativos que tengan por objeto su aplicación”*.

- 8. Fiskaltzari ingurumenaren kontrako delituak sortu ahal dituzten isuriak daudela jakinarazteko betebeharra.** Uretako isurien araubideko arau-hausteen funtsean ingurumenaren aurkako delituak gauzatu izanaren aukerak egonez gero, eskumenak dituen organoak espedientea jurisdikzio penalera bidali beharko du eta zehapen prozedura indargabetu beharko du agintaritzak judizialak azalpenak eman arte.

---

<sup>7</sup> Ingurumen erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea kontuan hartuz, ingurumenean sortutako kaltearen garrantzia zehazteko agiria. Eranskina. Uretan sortutako ingurumen kaltearen maila zehazteko agiria. 2019ko ekaina [https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/responsabilidad-mediambiental/anexosignificatividaddanoagua\\_junio2019\\_tcm30-497993.pdf](https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/responsabilidad-mediambiental/anexosignificatividaddanoagua_junio2019_tcm30-497993.pdf)

<sup>8</sup>Horri dagokionez, aipatu beharra dugu irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretua duela gutxi onartu dela. Horren bidez, gainazaleko uren egoera jarraitu eta ebaluatzeko irizpideak eta ingurugiro kalitatearen arauak ezarri ziren.

<sup>9</sup> Ingurumen kaltearen garrantzia zehazteko agiria, Ingurumen erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea oinarri hartuz. [https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/responsabilidad-mediambiental/determinacionsignificatividaddano\\_junio2019\\_tcm30-497992.pdf](https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/responsabilidad-mediambiental/determinacionsignificatividaddano_junio2019_tcm30-497992.pdf)

<sup>10</sup> Apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua. Horren bidez ezartzen da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala.

Alde batetik, zigor organo jurisdikzionaletara edo Fiskaltzara isurie buruzko espedienteak bidali ahal izango dituzte delituen inguruko zantzuak dituzten guztiek. Epaitze kriminalari buruzko Legearen 259. artikuluan zehaztuta dago delitu publikoak gauzatu direla dakiten pertsonak derrigorrez horren berri eman beharko dietela instrukzio epaileari edo Fiskaltzari.

Langile publikoei dagokienez, 262. artikuluan zehaztuta dago beren kargua delata delitu publikoen berri izatean, berehala salatu beharko dituztela gertakari horiek. Salaketa horiek Fiskaltzari, instrukzio epaileari edo ageriko delitua izanez gero, hurbilen dagoen polizia funtzionarioari bidali beharko zaizkie. Hori egiten ez baldin bada, diziplinazko erantzukizuna (EZLren 259. artikulua) edo zigor erantzukizuna sortu daitezke, Zigor Kodearen 408. artikuluan jasota dagoen bezala; horren arabera, karguaren betebeharra urratuz intentziaz ezagutzen dituen delituen aurka egiteari uzten dion agintaritzaren edo funtzionarioaren zigortzen dira.

Modu horretan, antolamendu juridikoan jasota dago funtzionario guztiek derrigorrez eskumenak dituen agintaritzaren jurisdikzionalera *notitia criminis* delakoa bidali behar dutela ikerketaren edo zigorraren edozein fasetan, susmagarriak diren edozein delituzko isurie dagokienez. Kasu horietan, ikuskaritza arduradunek, espedientearen instrukzio organoak edo zehapen organoak, jakinarazpena jasotzean derrigorrez akta edo espedientea bidali beharko dute Fiskaltzara edo eskumenak dituen auzitegira edo instrukzio epailearengana, horiek baloratu dezaten.

Uraren Legearen 120. artikuluan zehaztuta dago arau-hausteak delitu izan daitezkeenean, administrazioak erruzko abordatzea eskumenak dituen jurisdikziora bidaliko duela eta ez duela zehapen prozedurarekin jarraituko agintaritzaren judizialak adierazpenak egin arte. Delitua edo arau-haustea dagoela egiaztatzen ez baldin bada, administrazioak zehapen espedientearekin jarraitu ahal izango du auzitegiek egiaztatu dituzten egitateetan oinarrituz.

Era berean, urriaren 23ko 26/2007 Legearen 36 artikulua hauxe zehazten du: *“En los supuestos en los que las infracciones pudieran ser constitutivas de delito o de falta, la autoridad competente pasará el tanto de la culpa a la jurisdicción competente y se abstendrá de proseguir el procedimiento sancionador mientras la autoridad judicial no se haya pronunciado”*.

**Uretan isuri kutsatzaileak gauzatzearen eta kalte garrantzitsuak sortzearen ondoriozko delitua.** Baliabide naturalen eta ingurumenaren aurkako delituen barnean, Zigor Kodearen 325. artikuluan jasota daude ingurumena babesteko legeen aurka eginez gauzatutako isuriak, uraren kalitatean, animalietan edo landareetan kalte larriak sortu ditzaketenak. Bere aldetik, jarduera zehatzei dagokienez adierazi daiteke baita ere, uraren kalitatean kalte larriak sortu

ditzakeen antolamenduaren aurkako jarduera zehatzei dagokienez, 326. artikulua dela horiek arautzen dituen hondakinen tratamenduaren alorrean, eta 326. bis artikulua arriskutsuak diren jarduera industrialak arautzen ditu.

Mota horietan, hiru oinarriko elementu egon behar dira jokaeraren berezitasun objektiboa gertatzeko, hauek hain zuzen ere: a) Uretan zuzenean edo zeharka isuriak sortzea edo egitea, b) Ingurumen arau bat haustea eta c) Babestutako ondasun juridikoaren aurkako egoera arriskutsua sortzea, legez kontrako jardura kutsatzailea egitearen ondorioz. Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian adierazi den moduan (ikus abenduaren 15eko 5464/2016 Epaia), arrisku hipotetikoko delituak dira, izan ere ez dira sailkatzen arriskutsua den emaitza zehatz bat kontuan hartuz, baizik eta babestutako ondasun juridikoan arriskua sortu dezakeen jokaera kontuan hartuz.

Garrantzia zehazteari dagokionez, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia batean, kasu honetan abenduaren 14ko 926/2016 Epaian, garrantzia zehazteko irizpide gisa hauxe dago zehaztuta: “ *ekintza kutsatzailearen intentsitatea, arriskua emaitza kaltegarri bat bihurtzeko probabilitatea, azken finean, kaltearen tamaina hori garatzen den espazioari dagokionez, denboran duen iraupena, zuzeneko edo zeharkako kalteak, jokaera behin eta berriz egitea, isuriak errepikatzea, emisioak, eta abar, sistemen oreka berriz ere ezartzeko zailtasuna, pertsonak edo kontsumo elementuek duten hurbiltasuna*”.

## **9. Euskal Autonomia Erkidegoko ibaietan baimenik gabe egiten diren isurien ikuskaritza eta kontrola hobetzeko jarduketa proposamenak eta aholkuak**

### **1. Baimenik gabeko isuri kutsatzaileei buruzko ingurumen informazioa eskuratzeko hobekuntzak.**

**1.1. Informazio publikoa sustatzea.** URA-Uraren Euskal Agentziak bere webgunearen bidez ematen duen informazio maila altua da gaur egun, izan ere, ibaietan egindako kutsadura puntual garrantzitsuei buruzko datuak eta zehapen espediente kopuruari buruzko datuak ematen baititu. Administrazioak gauzatzen dituen kontrol publikoko jarduketei buruzko gardentasuna eta hedapena sustatzeko, Arartekoak kontrola gauzatzeari buruzko informazio publikoaren hedapena sustatzeko gomendatzen du. Horretarako, interesgarria litzateke baimenik gabeko isuri kutsatzaileei buruzko informazio puntuala txertatzea aztertzea, horren barne egongo zirelarik ikuskaritza aktak, zehapen neurriak eta ingurumen erantzukizuneko neurriak, albo batera utzi gabe hirugarren pertsonen eskubideak babesteak izan ditzakeen seudonimizazio neurriak.

**1.2. Ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidea** Interesa duen edonork eskatu dezakeen ingurumen informazioa eskuratzeari dagokionez, Arartekoak aipatu du garrantzitsua dela berariazko erantzuna bermatzea

baimenik gabeko isurien ikuskaritza eta kontrolerako egindako eskariak aurkeztu eta hilabeteko epean, Ingurumen gaitan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean ezarritakoari jarraiki.

Horrez gain, legezko betebeharrak aparte, interesgarria da URA-Uraren Euskal Agentziak beste irtenbide batzuk ezarri ahal izatea ingurumen informazio hori helarazteko, besteak beste bilerak, topaketak edo foroak, horien bidez ingurumen gaitan interesa duten elkarleen parte-hartzea sustatuz maiz gertatzen diren kutsadura arazoei dagokienez.

## **2. Baimenik gabeko isuri kutsatzaileen ingurumen kontroleko prozeduran interesa duten pertsonen egindako salaketen izapidetzean ezarritako hobekuntzak.**

### **2.1. Gertakari baten berri ematen duen pertsonaren eskubideak.**

Arartekoaren iritziz, larrialdiak kudeatzeko eskumenak dituen administrazioak (112 SOS Deiak zerbitzua) komunikatzaileari bermatu egin behar dio larrialdizko egoeraren izapidetzearen berri izango duela, zerbitzu horrek gauzatzen dituen jarduketak (beste administrazio batzuetara jakinaraztea edo bidaltzea) ezagutuko dituela, edo hala badagokio, kasua artxibatu izanaren berri ere jaso beharko du. Jakinarazpen hori ofizioz egin behar da -salaketa jarri duenak erabilitako bitarteko berdinarekin-, salbuetsiz kexagileak berriaz eskubide horri uko egin izana lehenengo jakinarazpenean.

Era berean, zerbitzu horrek salatzaileari informazioa eman beharko dio ingurumen salaketa formalizatzeko aukerari dagokionez, betiere kexagilearen helburua administrazioari gertakarien berri emateko haratagokoa baldin bada.

### **2.2. Ingurumen salatzailearen eskubideak.** Pertsona batek ingurumen salaketa aurkezten baldin bada, Arartekoak gogorarazi du, ingurumena defendatzeko ekintza publikoa egikaritzuz, salatzaileak horri buruz gauzatu daitezkeen ingurumen ikerketa espedienteak, espediente zigortzaileak eta erantzukizunpekoak izapidetzean interesatuei legeria prozesal administratiboak ematen dizkien eskubide berdinak izango dituela. Modu horretan, salatzaileek prozeduran parte hartzeko eskubidea, administrazio egintzen berri izateko eskubidea eta erabakitzen diren ebazpenen berri izateko eskubidea izango dute, baita txostenak eta alegazioak aurkezteko eta frogak proposatzeko eta administrazio erabakiak errekurritzeko eskubidea ere.

**2.3. Ingurumen salatzailea babesteko neurriak.** Arartekoak URA-Uraren Euskal Agentziarentzako jarduketa plana sortzea proposatu du, ingurumen salatzaileak aintzatesteko eta uraren legerian sortutako arau-hausteen berri ematen duten pertsonen bermeak sustatzeko. Administrazio neurri horiek salaketak aurkezteko gaur egungo bitartekoak ahalbidetu eta hobetu behar dituzte, salatzaileak babestu behar dituzte eta kasu bakoitzean ezarritako administrazio prozedurari buruzko informazioa eta laguntza eman beharko dute.

**2.4. Ingurumen salaketak sustatzeko beharra.** Arartekoak gogorarazi du uraren legezkotasuna ustez urratu delako ingurumen salaketa aurkezten denean, isuriak ikuskatzeko eskumenak dituen organoak ikerketa espedientea izapidetu beharko duela eta ondoren, zehapen espedientea hasteko erabakia hartzeko eskumenak dituen organora bidali beharko duela, eta ingurumenean garrantzitsuak izan daitezkeen kalteak sortuz gero, ingurumen erantzukizuneko espedientea izapidetu beharko da.

### **3. Ingurumen ikuskaritzan hobekuntzak ezartzea.**

#### **3.1. Ibaietako ingurumena zaintzeko koordinazio mekanismoak sustatzea.**

Arartekoak URA-Uraren Euskal Agentziaren, Ertzaintzaren, foru eragileen eta esku-hartzen duten tokiko gainerako eragileen ikuskaritza zerbitzuen arteko koordinazio neurriak sustatzea gomendatu du. Horretarako, gomendatzen da Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak hala eskatuta, hitzarmen bat sustatzea ibaien ingurumen zaintzako koordinazio mekanismoak bultzatzeko eta horiei segurtasun juridikoa emateko. Koordinazio horren oinarria printzipio batzuetan zehaztu behar da, besteak beste organo ikuskatzaile bakoitzaren eskumen materiala eta funtzionala, espezializazioa eta eskuragarri dituen bitartekoak eta esku hartzen duen agintaritzako agenteak berrikusi beharreko ingurune naturalarekiko duten hurbiltasuna.

Hitzarmenak bermatu egin behar du ikuskaritza organoek eta agintaritza agenteek erantzun azkarra emango dutela baimenik gabe jabari publiko hidraulikoan isuri kutsatzaileak egin direnari buruzko salaketak edo jakinarazpenak jasotzean. Horrez gain, hitzarmenak programatutako ikuskaritzak jaso behar ditu baimena duten isuriak ikuskatzeko planaren barnean, eta horren bidez bermatuko da administrazio baimenaren terminoak modu eraginkorrean bete direla.



**3.2. Ikerketa diligentziak ofizioz sustatzea eta eskumenak dituen ingurumen organoari bidaltzea.** Arartekoak azpimarratu du ikuskaritza organoek ofizioz sustatu behar dituztela isuriaren laginak jasotzeko beharrezko ikerketa lanak, isuriaren arduraduna identifikatzea eta bestelako neurriak ezartzea, baliabide naturaletan sortutako ingurumen kaltea egiaztatzeko eta zehazteko hain zuzen ere. Agintaritza agenteak derrigorrez diligentzia horiek jaso beharko ditu dagokion txostenean edo aktan.

Arartekoak adierazi du derrigorrezkoa dela ikuskaritza egiten duen agintaritzako agenteak berehala txosten hori bidaltzea aktarekin batera zehapen espedientea hastea erabakitzeke eskumenak dituen organora, eta ingurumenarentzako kalte garrantzitsuak sortuz gero, ingurumen erantzukizuneko espedientea bidali beharko du baita ere.

#### **4. Zehapen eskumenak egikaritzeko derrigortasun printzipioa.**

**4.1. Zehapen espedientea hasteari buruz ebazteko beharra.** Arartekoak gogorarazten du ebazteko eskumenak dituen administrazio organoak, arrazoizko epe batean administrazio espedientea hasteari buruzko ebazpena eman beharko duela eta erabaki horren berri eman beharko diela interesatuei, horien barne egongo delarik salatzailea. Erabaki hori behar beste arrazoituta egongo da, aktan jasotako egitateekin bat etorriko da, eta ordena publikoko nahiz legezkotasuna defendatzeko arrazoietan oinarrituko da aukerako edo beste maila bateko irizpideak alde batera utziz.

**4.2. Zehapen eskumena egikaritzeko beharra.** Arartekoak gogorarazi du zehapen eskumena egikaritzea baliaezina dela, eta uren legeriak esleitutako organo eskumendunek egikaritu eta sustatu behar dutela, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenekoak diren alorretan aplikatu beharreko zehapen espedienteari buruzko araubidearekin bat eginez.

**5. Isuriek sortutako ingurumen kalte larriak ordaintzeko betebeharra.** Arartekoak gogorarazi du Ingurumen erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean ondorio larriak sortzen dituzten ingurumen kalteei dagokienez ezarritako prebentzio neurriak, saihestekoak edo konpontzekoak ezarri behar direla.

Uretan egindako kalteei dagokienez, uraren egoera ekologikoan, kimikoan eta kuantitatiboan eta potentzial ekologikoan kalte larriak sortzen direnean hain zuzen ere. Espezieetan eta horien habitatetan kalteak sortzean, espezieen edo habitaten aldeko kontserbazio egoera lortzeko edo mantentzeko aukeren aurka doazen ondorioak sortzen direnean.

**6. Zigor ekintza lehenestearen printzipioa.** Arartekoak gogorarazi du uretako isurien araubideko arau-hausteen funtsean ingurumenaren aurkako delituak gauzatu izanaren aukerak egonez gero, zigor ekintza egikaritzea lehenetsi behar dela.

Modu horretan, langile publiko guztiek, ikerketa edo zehapen fase guztietan, zigor jurisdikzioan jakinarazi beharko dituzte baimenik gabe egindako isuri kutsatzaileak, bereziki larriak izanik, delituzkoak izateko susmagarriak direnak. Jakinarazteko behar hori ikuskaritza langileek, espedientea izapidetzen duten funtzionarioek eta ingurumen erantzukizuna zigortzeko edo eskatzeko eskumenak dituen organoek izango dute.

Kasu horretan, langile publikoek derrigorrez akta eta administrazio espedientea bidali beharko dute Fiskaltzara, edo hala badagokio eskumenak dituen auzitegira, bertan baloratu dezaten. Hala dagokionean gainera, eskumenak dituen organora ere bidali beharko dute, martxan dagoen espedientearen izapidetzea eteteko hain zuzen ere.

Horrez gain, Arartekoak gogorarazi du eskumenak dituen agintaritzak Fiskaltzan jakinarazi beharko dituela lege horretatik eratorritako ingurumen erantzukizuneko inguruabar guztiak.

ararteko

Herriaren Defendatzailea

*Defensoría del Pueblo*